



GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK GIZARTERATZEA

ZERGATIK?



Une honetan, Gizarte Politiketako Sailak, AGIFES Osasun Mentaleko Arazoak dituzten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkartearekin adostutako zerbitzu gisa, sozializazioari laguntzeko programa bat eskaintzen du, buruko gaixotasun larria duen pertsona komunitateko baliabide normalizatuarekin erlazionatzeko, aisialdiko baliabideak barne, jarduerak eginez, ingurune naturalean integratzea erraztuz eta zirkuitu normalizatuetan birtxertatuz.

Programa honen erabiltzaileek espazio fisiko bat dute Donostian.

Proiektuak hiru jarduera barnebiltzen ditu:

- 1.- Gipuzkoa Ekialdeko zerbitzua asteburuetara zabaltzea.
- 2.- Eibarren zerbitzua errepiklikatzea (hasieran ordutegi laburragoarekin).
- 3.- Beasainen zerbitzua errepiklatzea (ordutegi osoarekin edo murriztuarekin).

NORK?

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako
Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?



- 1.- Egungo erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzea.
- 2.- Zerbitzua lurraldeko eremu gehiagotan eskaintzea. Gaixotasun mentala duten pertsonen taldea bere bizigarapenaren fase desberdinetan dauden eta kezka eta interes desberdinak dituzten pertsonen talde heterogeneoa da. Talde honek erakusten dituen jardunzailtasunen barruan, sozializazioa eta aisialdiko jardueretako parte-hartzea dira gabezia handienak dituzten arloetako bat, eta maiz gertatzen dira gizarteisolamendua eta bakardadea. Aisiako eta astialdiko egungo zerbitzua zabaltzeko ahalegina egiten da proiektu honen bidez, jardueraeremu geografikoa eta esku hartzeko ordutegia zabalduz.

NOLA?

Helburua proiektua 2023ko urtarrilaren 1ean martxan jartzea eta 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzea da. Donostialdean ez dago zailtasunik, zerbitzua astelehenetik ostiralera existitzen baita eta zerbitzua ematen den lokala asteburuetan ere erabilgarri baitago. Eibarren ere lokala badago erabilgarri. Beasainen zerbitzuaren ordutegia kontuan hartu behar da lokalaren kokapen egokia bilatzeko.



NON?

Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



150.000€